

## La Universidad de Deusto- San Sebastián y la empresa navarra Gingko pondrán en marcha para el próximo curso el postgrado “*Experto en orientación, supervisión y coaching*”

El curso pretende dar una respuesta innovadora a la gestión de conflictos, relaciones y tareas en el ámbito laboral

Hoy miércoles, 28 de mayo, se ha firmado el Convenio de Colaboración entre la Universidad de Deusto (Escuela de Trabajo Social del campus de San Sebastián) y la empresa navarra Gingko de Asesoramiento y Desarrollo Personal, para la puesta en marcha el próximo curso del “**Curso de especialización en orientación, supervisión y coaching**”. El objetivo es dar una respuesta innovadora a la gestión de conflictos, relaciones y tareas en el ámbito laboral relacionadas con la gestión de personas tal y como han explicado hoy en rueda de prensa Jose M<sup>a</sup> Guibert (Vicerrector del campus de San Sebastián de la Universidad de Deusto), Jesús Hernández Aristu (coordinador académico y representante de Gingko), Asun Berasategi (coordinadora académica y profesora de la Escuela de Trabajo Social) y Cinta Guinot (Coordinadora de la Escuela de Trabajo Social)

Conceptos como el de control total de calidad en la empresa, el de equipos integrales de producción, ambiente laboral sano, gestión comunicativa y motivadora de los trabajadores son hoy habituales en la jerga de empresarios y ejecutivos, no sólo por una mayor conciencia de responsabilidad social, sino también por un contrastado concepto de rentabilidad económica. Los riesgos psicosociales, la prevención de los mismos, el tratamiento del llamado burn out, o síndrome del quemado, del cansancio físico y psíquico de los profesionales (sobre todo en ámbitos educativos, sociales y sanitarios) han encontrado su respuesta en un sistema de asesoramiento, de reflexión y de aprendizaje en la orientación, en la supervisión y en el coaching.

El Asesoramiento y la mediación en el trabajo se vienen ejerciendo en centroeuropa desde hace ya décadas como respuesta por un lado, a los riesgos psicosociales y por otro a las exigencias de calidad, de excelencia de productos y servicios. En ese sentido el desarrollo de las normas ISO han venido a corroborar tanto la necesidad como la exigencia de garantizar a través de una serie de normas y cumplimiento de procesos y sistemas procedimentales en el ámbito laboral, en las empresas y en las organizaciones en general, la calidad en la gestión de personas.

Con este **curso de especialización en orientación, supervisión y coaching** la universidad pretende formar expertos que sepan atender a profesionales en los conflictos, en las relaciones y en el cumplimiento de sus tareas a un nivel de excelencia en los ámbitos laborales, reforzar los lazos funcionales y la cohesión de los equipos de trabajo, reforzar la capacidad de dirección y gestión para ámbitos de tanta relevancia como son los sanitarios, los sociales y los educativos, pero también en otras organizaciones productivas, empresas en general. La Universidad de Deusto ha querido apoyarse en este nuevo e innovador proyecto en la experiencia acumulada de la empresa consultora **Gingko Asesoramiento y Desarrollo Personal** que, como continuación de la Asociación Navarra Mitxelena para la Supervisión, ha sido pionera en España en esta formación en asesoramiento, garantizando así, por un lado la calidad de la formación, en la que participa profesorado cualificado nacional e internacional y el reconocimiento internacional a través de la Organización Europea ANSE (Asociation of Nationalorganizations of Supervision in Europe), con sede en Viena, Austria.

## Contexto

Los estados vienen regulando desde hace algún tiempo las relaciones entre los trabajadores y la empresa en lo que se ha denominado como prevención de riesgos laborales, entre ellos se van incluyendo también como riesgos los procesos de deterioro relacionales, el cansancio físico y psíquico de los profesionales, el burn out, el mobbing, el estrés y la ansiedad, fenómenos cada vez más frecuentes en muchos ámbitos laborales, en especial en aquellos en los que la relación se convierte en elemento primordial para la práctica exitosa de la profesión, es decir, en los servicios sociales, en la educación y en la sanidad.

Pero no solo en estos ámbitos, pues según estudios realizados en la Unión Europea se calcula que el 28% de todos los trabajadores tiene problemas de salud relacionados con el estrés en el trabajo, lo que significa unos 41 millones de personas. La tensión en el trabajo representa, en el mercado laboral de América del Norte, un gasto anual de 200 a 300 mil millones de dólares. La tensión laboral es parte del 60 al 90% de los problemas médicos. Los trabajadores que dicen sufrir de un fuerte estrés laboral, tienen un 30% más de posibilidades de sufrir accidentes que aquellos con bajo estrés. La Organización Internacional del Trabajo (OIT), calcula que de todos los trabajadores europeos, los profesionales de la salud son los que más actos violentos sufren (24%), por delante de los trabajadores de la educación (7%), seguridad (2%) y policía (5%). Esta organización calcula que hasta el 50% de los facultativos han recibido alguna vez amenazas, el 4% han sido agredidos físicamente y otro 4% acaban sufriendo problemas psíquicos por estas causas. El personal ejerce su función, en un 30 hasta un 50 %, bajo el síndrome del estrés, de la ansiedad, incluso del burn-out.

Estos fenómenos pueden deteriorar a las personas, a los servicios, a la economía incluso de las empresas, como lo han demostrado otras investigaciones, y son la manifestación de que el trabajo se ha convertido para muchas personas, no ya en el lugar de ganarse más o menos dignamente el pan, sino en un auténtico infierno, un lugar odioso, del que hay que huir tantas veces se pueda, para sobrevivir. En este sentido son importantes las legislaciones de prevención de riesgos laborales que existen en la mayoría de los países, aunque no son suficientes.

En este sentido los expertos que quiere formar la Universidad de Deusto pueden contribuir a la prevención de esos fenómenos y a la superación de situaciones de deterioro relacional en el trabajo, además de ayudar a la consecución de la excelencia en las empresas de producción y en las que prestan servicios.

Más información:

[www.supervision.deusto.es](http://www.supervision.deusto.es)

[www.gingko.es](http://www.gingko.es)

Iker Ormazabal  
Prensa UD-San Sebastián  
Te.: 943 326 216

---

## **Deustuko Unibertsitatearen Donostiako campusak eta Nafarroako Gingko enpresak “Orientazioan, gainbegiratzean eta coaching-ean aditua” graduondokoa jarriko dute abian datorren ikasturtean**

Ikastaroak erantzun berritzailea eman nahi dio laneko gatazken, harremanen eta egitekoen kudeaketari

Gaur asteazkena, maiatzak 28, Deustuko Unibertsitatearen (Donostiako campuseko Gizarte Laneko Eskola) eta Nafarroako Gingko enpresaren artean, Banakako Aholkularitzako eta Garapeneko enpresa, Lankidetzeta Hitzarmena sinatu da, datorren ikasturtean “**Orientazioan, gainbegiratzean eta coaching-ean espezializazio ikastaroa**” abian jartzeko. Ikastaroak erantzun berritzailea eman nahi dio laneko esparruan pertsonen lotutako gatazken, harremanen eta egitekoen kudeaketari, gaur prentsaurrekoan ikastaroaren arduradunek azaldu dutenez: Jose M<sup>a</sup> Guibert (Deustuko Unibertsitatearen Donostiako campuseko errektoreordea), Jesús Hernández Aristu (koordinatzaile akademikoa eta Gingkoko ordezkaria) eta Asun Berasategi (koordinatzaile akademikoa eta Gizarte Laneko Eskolako irakaslea) eta Cinta Guinot (Gizarte Laneko Eskolako koordinatzailea)

Erabateko kalitatea enpresan, ekoizpeneko talde integratuak, laneko giro osasuntsua, langileen kudeaketa komunikatzailea eta motibatzailea eta antzeko kontzeptuak ohikoak dira gaur egun enpresaburuen eta exekutiboen hizkeran, gizarte erantzukizunaren kontzientzia handiagoarengatik ez ezik, baita errentagarritasun ekonomiko handiagoa dakartelako ere. Arrisku psikosozialek, haien prebentzioak, burn out edo erreta dagoen pertsonaren sindromeak, langileen neke fisikoak eta psikikoak (batez ere hezkuntzan, gizarte zerbitzuetan eta osasunaren alorrean) erantzuna aurkitu dute aholkularitzako, hausnarketako eta ikaskuntzako laguntza eskaintzen duen orientazioan, gainbegiratzean eta coaching-ean.

Lanean aholkularitza eta bitartekaritza ohikoa da Europako Erdialdean orain dela hainbat hamarkadaz geroztik, batetik, arrisku psikosozialei erantzuteko eta bestetik, kalitatearen eskakizunei eta produktu eta zerbitzuen bikaintasunaren eskakizunei erantzuteko. Ildo horretatik, ISO arauak garatzeak pertsonen kudeaketan ere kalitatea bermatzeko beharra eta eskakizuna utzi du agerian, laneko esparruan arau jakin batzuk eta prozesuak eta prozedura sistemak betetzearen bidez, enpresetan eta erakundeetan oro har.

**Orientazioko, gainbegiratzeko eta coaching-eko espezializazio ikastaro** honekin unibertsitateak prestatu nahi dituen adituak gai izango dira profesionalei erantzuteko beren egitekoak bikaintasunez betetzerakoan, gatazketan eta harremanetan; lan taldeen lotura funtzionalak eta kohesioa indartzeko; eta zuzendaritzako eta kudeaketako gaitasunak indartzeko garrantzi handiko esparruetan, esaterako, osasun, gizarte eta hezkuntza arloak, baina baita ekoizpen erakundeetan ere, enpresetan, oro har. Deustuko Unibertsitateak proiektu berri eta berritzaile honetan **Gingko Asesoramiento y Desarrollo Personal** Nafarroako enpresaren urte askotako esperientzian oinarritu nahi izan du. Gingko, Gainbegiratzeko Nafarroako Mitxelena Elkartearen ondorengoa, aitzindaria izan da Espainian aholkularitzako prestakuntza honetan. Horregatik, alde batetik prestakuntzan kalitatea du berme, nazioko eta nazioarteko irakasle kualifikatuekin, eta bestetik, ikastaroaren nazioarteko onespina, Europako ANSE (Association of National Organizations of Supervision in Europe) erakundearen bidez, Vienan (Austria) egoitza duena.

## Testuingurua

Estatuak hainbat urtetatik hona langileen eta enpresaren arteko harremanak arautzen ari dira, lan arriskuen prebentzioa deitutakoaren barruan. Lan arriskuen prebentzioaren barruan sartzen dira, baita ere, harremanak okertzeko prozesuen arriskuak, langileen neke fisikoa eta psikikoa, burn out, mobbing-a, estresa eta larritasuna... Fenomeno horiek gero eta sarriago azaltzen zaizkigu lan esparru askotan, batez ere pertsonen arteko harremanak lanbidean arrakastaz jarduteko funtsezko elementu diren haietan, esaterako, gizarte zerbitzuak, hezkuntza eta osasun zerbitzuak.

Baina ez soilik esparru horietan. Izan ere, Europako Batasuneko hainbat azterlanen arabera, langileen %28k laneko estresarekin lotutako osasun arazoak ditu, alegia, 41 milioi pertsona inguru daude egoera horretan. Laneko tentsioak Ipar Amerikako lan merkatuan 200-300 mila milioi dolarretako gastua dakar urtero. Laneko tentsioa osasun arazoan %60-90en zati da. Laneko estres larria dutela esaten duten langileek estres txikia dutenek baino %30 probabilitate handiagoa dute istripuak izateko. Lanaren Nazioarteko Erakundeak emandako datuen arabera, Europako langile guztien artean, osasun alorrekoek jasaten dituzten indarkeriako ekintza gehien (%24) eta horien atzetik datoz hezkuntzako langileak (%7), segurtasunekoak (%2) eta polizia (%5). Erakunde horrek kalkulatu du sendagileen %50ek noizbait mehatxuak izan dituela, %4ri eraso fisikoak egin dizkiote eta %4k arazo psikikoak ditu arrazoi horregatik. Langileen %30-50ek bere lana estresaren, larritasunaren eta burn-out sindromearen pean egiten dute.

Fenomeno horiek pertsonak, zerbitzua, ekonomia, enpresak kaltetu ditzakete, hainbat ikerlanen arabera. Horrela, lana pertsona askorentzat duintasun handiagoz edo txikiagoz eguneroko ogia irabazteko tokia izan ordez, benetako infernua bihurtu da, gorrotatzeko moduko tokia eta ahal den guztietan bertatik ihes egin behar da, bizirik iraun ahal izateko. Ildo horretatik, garrantzitsuak dira herrialde gehienetan lan arriskuak prebenitzeko dauden legeriak, baina oraindik ez dira nahikoak.

Deustuko Unibertsitateak prestatu nahi dituen adituak fenomeno horiek prebenitzen eta lanean harremanak okertzeko prozesuak gainditzen lagundu dezakete. Gainera, ekoizpeneko eta zerbitzuetako enpresetan bikaintasuna lortzen lagun dezakete.

Informazio gehiago:

[www.supervision.deusto.es](http://www.supervision.deusto.es)

[www.gingko.es](http://www.gingko.es)

Iker Ormazabal  
Prensa DU Donostia  
Te.: 943 326 216